




# NAFARROA, EUSKAL ESTATUA



Penintsula Kordobako Kalifatoaren garaian.

Frantziako karta batean.

Iturria: Navarra, el estado vasco. (1999)

Nafarroa, XVI. mendea



## NAFARROA, EUSKAL ESTATUA

**N**afarroako batasun politikoa interpretatzeko modu desberdinen inguruan hiru korronte historiografiko nagusi osatu dira: espainiarra, baskongadoa eta nafarra.

Espainiarrak, euskal lurren barne batasun politikoa ukatzeaz gain, zalantzan jartzen du Nafarroa Europako estatu subiranoa izan dela. Korronte honetakoen ustez, Gaztela da, penintsula osoan, legezotasun politikoa duen bakarra eta penintsulako batasun politikoa betidanikoa izan da; baieztapen horien defentsan aurretikoak bilatu izan dituzte zeltibero, erromatar eta bisigodoengan. Beste alde batetik, balizko “Erdi Aroko erresuma hispanoa” izango zen Nafarroaren jatorria, ustez Leon eta Gaztelaren menpekoa. Interpretazio hau defendatzen duten historiagile espainiarrak, besteak beste: Claudio Sánchez Albornoz, Justo Pérez Urbel, Ramón Menéndez Pidal, Angel García Cortazar, Angel Martín Duque, eta abar.

Korronte baskongadoak ezkutatu egiten du Euskal Herriko lurraldeen artean egon zen batasun politikoa, bai eta ahaztu Nafarroak euskaldun guztiak barne hartu zituela ere. Horren ordez, herrialde historikoek, nork bere aldetik, independentzia garaia izan zutela baieztatzen du, Gaztelako erregearekin parekotasunean egindako itunarekin bukatu omen zena. Nolanahi ere, nabarmendu behar da interpretazio horren jatorria guztiz politikoa dela. *Status quo* juridiko-politikoari eutsi behar zioten, neurri batean Gaztelaren boterearen menpe baitziren, eta horretarako ezin zuten esan Nafarroa zirenik, hori Gaztelako koroarekiko traizioa izango baitzen eta, gainera, konkista onartuz gero ezinezkoa zen itunari eustea. Beraz, funtsezkoenean gezurrik esan gabe, 1200. urtea baino lehen independenteak zirela baieztatu zuten, azalduz, data horretan, oinarri politiko gisa, Gaztelarekin ituna egin zutela parekotasunean. Interpretazio honen aldeko egile garrantzitsuenak Novia de Salcedo, Labayru, Gorosabel, Arana eta beste batzuk izan dira.

Bertsio nafarrak dionez, ordea, Nafarroako Erresuma Europako estatua izan zen, euskaldunek izan duten bakarra. Nafarra izan zen euskal erresuma. Nafarra da euskal batasun politikoa. Eta horrela frogatzen dute hainbat lekukotasun juridiko-politikok: X., XI. eta XII. mendeetan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxako lurraldeetan egondako ordezkariak nafarrak; 1016 eta 1127ko Itunen lurraldetasuna eta 1177ko Londreseko Laudo Arbitrala; lurralde horien nafartasuna jasotzen duten legeak eta foruak; bertako biztanleak nafarrak zirela adierazten duten bidaia-liburuak, esaterako Aimery Picaud-ena eta Tuterako Benjaminena; garai hartako historiagileen testuak, hala nola Annelier edo Ximenez de Radarenak. Interpretazio honen aldekoak dira, besteak beste, Arnaut Oihenart, José Moret Mendi, José María Lakarra, Arturo Kanpion, Anacleto Ortueta, Antonio Ubieto Arteta, Pierre Narbaitz, Juan Iturralde, Hermilio de Oloriz, eta abar.

Hiru korronte hauek ez datoz bat 1200. urtean jazotako gertaeren balorazioa egiterakoan.

Korronte espainiarraren iritziz, konkistaren berri ematen zuten garaiko iturriek ziotena ukatuz, euskal probintziek borondatez eskaini zioten beren burua Gaztelako erregeari. Korronte baskongadoak dio berdinen arteko ituna gertatu zela, foru erregimenaren oinarria izan zena. Eta korronte nafarrak bere aldetik, iturri materialei nahiz agirizkoei jarraituz, Nafarroak inoiz onartu ez zuen inbasioa, konkista eta okupazio militarra gertatu zela baieztatzen du.

Urte luzeetan zehar arreta handiz ezkutatu dira konkista, okupazio, nazionalisten akabatze, hizkuntza ezabatze eta asimilazio ekintza berariazkoak, eta onartezinak dira horiek guztiak zuritu nahi dituzten planteamenduak. Asturiasen eta Gaztelaren noizean behineko erasoak balizko botere-txandakatzearen arrazoi gisa defendatzeak ez du inolako oinarri dokumentalik. Horren guztiaren froga gisa geroago faltsuturiko agiriak erabili dira edo garaiko kroniken interpretazio okerrak.

Bestalde, bi komunitate daudela proposatzea dikotomia ezin okerragoa da. Ezin dugu euskaldun eta nafarren arteko bereizketarik egin. “Nafar” hitza, ororen gainetik, kontzeptu juridiko-politikoa da. *Codex X Calixtinus* delakoan nafartzat jotzen dira Araba eta Bizkaiko

biztanleak, Oka mendietaraino; ondoren “hispani” deitutakoak daude. 1177ko Londreseko Laudo Arbitraleko argudioetan adierazten den bezala “erabateko fidelotasuna agertzen dute bertako biztanleek” Nafarroako erregearekiko. 1200.eko konkistaren ondoren, norbaitek bere burua nafartzat eta ez Gaztelakotzat jotzen bazuen konkistaturiko lurraldeetan, traizio goreneko zigorra jasotzen zuen Gaztelako erregearen aldetik. Geure nortasun nazionaletik begiraturik euskaldun guztiak politikoki nafarrak gara eta nafar guztiak kulturalki euskaldunak. Txanpon beraren alde biak dira.

Izan ere, Nafarroako estatu europarra, XII. mendeko gainerako Europa bezalaxe, lurraldetasuna ondo mugaturik zuela eratu zen, eta horrela bermatzen zuten mugei buruz 1016ko Gaztelako Kondearekin sinaturiko itunak, 1127ko Tamarako Itunak eta 1177ko Londreseko Laudo Arbitralak. Eta garaiko agiriek diotenez, Castro Urdialeseraino heltzen ziren 1190. urtean erresumako itsas urak.

Bada, alabaina, guztiz hedaturik dagoen akats larri bat. Giza errealitatea islatzen duten bi hitz nahastea, alegia. Pertsona berberak dira euskal hiztunen komunitatea eta kultura, hots, Euskal Herria, osatzen dutenak, eta estatutasuna, sistema juridikoa, hots, Estatu-nazioa den Nafarroa politikoa osatzen dutenak. Nazioa edo gizarte politikoa azaltzen du Nafarroako Estatuak, eta hori teknikoki baino ezin daiteke bereizi Euskal Herria den komunitate edo nazio kulturaletik.

Egun Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxa diren herrialdeek, garai hartan Nafarroako mendebaldea osatzen zutenak, independentzia galdu zutela 800 urte betetzen dira 2000. urte honetan, Hondarribitik Logroñoraino doan lerrotik mendebaldera zeuden lurralde nafarrak Gaztelak konkistatu eta okupatu baitzituen. Nafarroaren gainerakoak ere, defentsa gogorragoak gorabehera, bide bera segitu bazuen ere –1512an Gaztelaren esku eta 1620an Frantziaren esku– eta XIX. mendean estatuko instituzioak ezabatu eta ordezkatu zituzten arren, 1200. urteko datak badu garrantzia, independentziaren galeraren benetako hasiera markatzen baitu.

Gaztelako armadek, itun guztiak hautsiz, inbasioari ekin zioten, mugak hautsiz eta nafarren gotorlekuak birrinduz. Gasteiz setiatu zuten eta hiriak bederatzi hilabetez eutsi zion setioari. Gasteiz zen Nafarroaren mendebaldeko hiririk nagusia –1181. urtean eman zion forua Nafarroako Santxo VI.a erregeak–; hilabete luzeen ondoren, gaixotasunak eta goseak jota, gasteiztarrek amore eman eta errenditu behar izan zuten, Santxo VII. Indartsuaren baimenaz, askatasuna berreskuratzeko aukera hobearen zain. Gasteizen konkista izan zen Nafarroaren, euskaldun guztion estatuaren independentziaren galeraren benetako hasiera.

Historiagile askok zailtasun handia dute beren buruak Espainiako eta Frantziako akademiek ezartzen dizkieten gogoeta eta pentsamendu-kontroletik askatzeko. Euren Estatuaren irudi idealarekin bat ez datorren, eurek duten “aurrerapenaren” ideiarekin bat egiten ez duen ororen aurka jotzeko konpromisoa dute –kontzientea edo ez–, bai eta iraganari dagokionez ere.

Izan ere, Nafarroak bere nortasuna du, bere arkitektura estatal historikoa, legezkoa, zentraltasun eta lurraldetasun izaera propioa, espainiarraren eta frantziarraren ezberdina. Lurraldetasuna irudi grafikoetan, agirietan eta aztarna materialetan islaturik dago. Muga geopolitikoak muga geokulturalekin eta hizkuntzaren mugekin bat datoz eta itunek inguruko lurraldeekiko mugak berresten dituzte.

Estatalitatea da subiranotasunaren euskarria, subiranotasunik gabe benetako demokraziarik ez dagoela argi utzita. Estatuaren aldeko joerak ez bezala, egungo konstituzionalismo nafarra, 1838, 1839, 1883 eta 1940. urteetako egitasmoen harian, Nafarroako Estatu europar historikoaren kontzeptu juridiko, politiko eta lurraldekoaren gainean eraikita dago.

Tomás Urzainqui Minaren sarrera

*Nafarroa: iragana eta oraina,*

Iñaki Petxarroman. Txalaparta. 2000 (Moldatua).

## Ulermen galderak

1. *Zer diote korronte historiografikoek Nafarroako batasun politikoari buruz?*
  - a) Korronte espainiarraren arabera, penintsulako batasun politikoa zeltibero, erromatarren eta bisigodoen garaietan kokatu behar da.
  - b) Korronte baskongadoaren arabera, herrialde historikoek independenteak izan ziren Gaztelako erregerarekin eginiko itunari esker.
  - c) Korronte nafarraren arabera, euskal lurraldeak, dokumentuek frogatzen dutenez, Nafarroa ziren.
  - d) Nafarroa euskal lurraldean zegoen erresumetako bat zen.
  
2. *Novia de Salcedo, Labayru, Gorosabel, Arana... historiagileen iritziz...*
  - a) euskal lurraldeak burujabeak izan ziren eta egoera hori 1200. urtean amaitu zen.
  - b) euskal lurralde historikoak Nafarroaren parte zirela onartzen dute, interpretazio guztiz politikoa eginez.
  - c) lurralde historikoen *status quo* politiko-juridikoa Gaztelaren menpe zegoen.
  - d) Nafarroaren konkistan itunik ez zen egon, hori traizioa izango baitzen.
  
3. *Zer diote historiagile espainiarrek Nafarroako Erresumaz?*
  - a) Horien arabera, Nafarroa Leon eta Gaztelaren parekoa zen Erdi Aroan.
  - b) Onartzen dute Nafarroa konkistaren bidez bereganatu zuela Gaztelak.
  - c) Europar Nafarroa estatu soberanoa izan zela aitortzen badute ere, ukatu egiten dute batasun politikoa izan zuenik.
  - d) Ez dute onartzen Nafarroa euskaldunen estatu subiranoa izan zela.
  
4. *Zer dira 1200. urteko gertakizunak?*
  - a) Urte haietan manipulazio kolektibo larria gertatu zen, Asturiasen eta Gaztelaren erasoak zirela eta.
  - b) Historiagile nafarren arabera, Nafarroaren inbasioa, konkista eta okupazio militarra gertatu zen.
  - c) Urte haietan euskal lurraldeak elkartu egin ziren Gaztelarekin, iturri materialek eta agiriak frogatzen dutenez.
  - d) Orduan antolatu ziren foru erregimenaren oinarriak, historiagile gehienek arabera.
  
5. *Zertan oinarritzen dira historiagile nafarrak Nafar estatuaren tesiei eusteko?*
  - a) Nafarroko Erresumaren garaiko testigantza juridiko, politiko eta historikoetan.
  - b) Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxa aldean jasotako legeetan eta foruetan.
  - c) Euskal probintziek beren borondatez egin zutela bat Gaztelako erregearekin.
  - d) Asturiasen eta Gaztelaren aldetik gertatu ziren erasoak ez daudela dokumentaturik.

6. *Nafarroako Erresuma norainokoa zen?*
- a) XII. mendeko Europako estatu askok bezala, Nafarroak mugak aldatzeko akordio asko egin behar izan zituen.
  - b) X-XII. mendeetako itunetan eta agirietan argi agertzen dira Nafarroaren mugak.
  - c) Mende haietan aldakorrak izaten ziren mugak, dokumentu askotan ikus daitekeen bezala.
  - d) Gaztelako lurak ere konkistatu zituen Nafarroak, baita Castro Urdiales ere.
7. *Zer lotura dago “Nafarroa” eta “Euskal Herria” kontzeptuen artean?*
- a) Historikoki, Nafarroa kontzeptu juridiko-politikoa da eta Euskal Herria kontzeptu kulturala.
  - b) Teknikoki, Euskal Herria kontzeptu kultural desberdina da.
  - c) XIII. mendean “Nafarroa” hitz debekatua zen, eta zigor handia ekartzen zuen hori aipatzeak.
  - d) Oso hedatuta dagoen akatsa da bi hitzak nahastea, bi komunitate dira eta.
8. *Zer dira testuan aipatzen diren dokumentuak eta itunak?*
- a) XI-XII. mendeetako gorabehera historiko batzuen berri ematen duten izkribuak dira.
  - b) Agiri batzuk dira, Nafarroako agintari politikoek idatziak, XI-XII. mendeetan.
  - c) Nafarroaren estatu izaera frogatzen duten testigantza dokumentalak dira.
  - d) XII. mendean, Europan ohizkoa zen bezala, Nafarroan ere hango lur arazoak dokumentuetan jasotzen ziren.
9. *Noiz gertatu zen Nafarroaren konkista?*
- a) 1512. urtean Gaztelaren esku geratu zen Nafarroa osoa.
  - b) 1620. urtean Frantziak bere menpe hartu zuen Nafarroa.
  - c) Santxo VI.a erregearen garaian, 1181. urtean, zehatz esanda.
  - d) 1200. urtean hasi zen eta hurrengo mendeetan jarraitu zuen.
10. *Idazlearen iritzi, zer arazo izaten dute historiagileek?*
- a) Irudi grafikoetan, agirietan eta aztarna materialetan dagoen guztia islatu behar izaten dute.
  - b) Askori zail egiten zaie aurriritzietatik eta idealetatik aldentzea.
  - c) Zailtasun handiak izaten dituzte, batez ere beraien akademiaren kontrol batzuekin.
  - d) Muga geopolitikoaren eta geokulturalen bidez finkatu behar izaten dute lurraldeen hedadura.

---

**Laguntza:** A (hiru erantzun), B (hiru erantzun), C (bi erantzun), D (bi erantzun).